

Sagastietako izurri eta gaixotasunak ikusgai interneten

► II. Sagardo Lehiaketako hiru sagardotegi irabazleak ere saritu zituzten atzo

Ekainaren 14an Donostian egin zen II. Sagardo Lehiaketako irabazleei sariak banatu ostean, Gipuzkoako sagarrondoan izurriak eta gaixotasunak buruzko informazioa biltzen duen web orriaren aurkezpena hasi zen. Izurri eta gaixotasunen izendapena, horiek kontrolatzeko moduak edota fitxa teknikoak ageri dira web orri horretan.

Garikoitz MUJICA

DONOSTIA

Gipuzkoako sagarrondoan izurriak eta gaixotasunak aipagai dituen web orria aurkeztu zen atzo, Aldundiak Donostian duen egoitzako Trono aretoan. Baina prentsaurrekoari hasiera eman baino lehen, ekainaren 14an egin zen II. Sagardo Lehiaketako hiru irabazleei sariak banatu zizkieten.

Nuria Lopez de Gereñuk, Landa Ingurumenaren Garapenerako diputatuak, hitza hartu zuenean sagardoaren kalitatea hobetzeko egiten ari diren ekimenen artean kokatu zuen web orriaren sorrera. Horren haritik, 1917. urtean Aldundiak bul-tzaturiko Pomologia Batzordearen eraketa ere gogora ekarri zuen, sagastien izurri eta gaixotasunen kontrolak duen garrantzia adierazi nahian.

Gainera, 1986. urtean Lakua-ko Gobernuaren eta Gipuzkoa-

ko Aldundiaren arteko lanaren ondorio gisa argitaratu zuten liburua ere aipatu zuen, hain zuzen ere, atzo aurkeztutako web orriaren oinarria izan delako. Izan ere, liburu horretan, Gipuzkoako sagastien azterketa egiten zen: sagarrondoan berreskuratzeko eta garapenera buruzko informazioa eta landareen izurrien eta gaitzen diagnostiko eta kontrolaren gainekoa biltzen zen.

1986ko liburua oinarrian

Iñaki Larrañaga, web orrialdearen egileetako batek aipatu zuenez, «orduan liburua egiten ari-tu ginen, baina egun liburu hori agortua dagoenez, web orria sortzea erabaki dugu. Horrela eginez gero, jende gehiagorengana iritsiko gara». «Gainera, nabarmentzekoa da, 1986an argitaratutako liburu hori web orri honen oinarria izan dela» adierazi zuen Larrañagak.

www.gipuzkoa.net orrialdean sartu, ondoren Landa Ingurumenaren gunera joan, eta azkenik sagarrondoan izurriak eta gaixotasunak ezagutaraziko dituen web orrialdera iristen da. Bertan, azalpen guztiak euskaraz eta gaztelaniaz daude.

Dioni Berrak, Fraisoro laborategiko kideak, adierazi zuenez sei gune daude bertan. Lehenbizikoan aurkezpena dago, eta bigarrenaren proiektuaren sarrera. Hirugarrena, berriz, sagarrondoak hizpide dituen gunea da. «Bertan mugimen-



Imanol OTEGI | ARGAZKI PRE

Saritutako sagardoegileak.

dua duen grafiko aktibo bat dago, sagarrondoan egoera femologikoa erakusten duen grafiko, hain zuzen ere», esan zuen Berrak.

69 fitxa tekniko ikusgai

Laugarren gunea da web orriaren gehien nabarmentzen dena. Izan ere, laugarren atal hau da izurrien eta gaixotasunen aurkibide gisa azaltzen dena. Gune horretan sartuz gero, 69 fitxa tekniko aurkituko dira bertan. Horietatik guztietatik hamar dira garrantzitsuenak, horietan baitator Gipuzkoako sagastien zuzenean eta gehien kalteztzen dituzten gaixotasunen gaineko informazioa.

Dioni Berrak adierazi zuen moduan, «irakurtzen zozan heinean hitz tekniko asko agertzen dira, ulertezinak izan daitezkeenak, eta horregatik hiztegi interaktibo bat ere txertatu dugu». Bosgarren atalean sagastien izurriak eta gaixotasunak kontrolatzeko moduak datoz. Bertan gaixotasunei aurre egiteko produktuak nola erabili behar diren adierazten da, hau da, zein den unean uneko erabilera egokiena. «Gainera, bertan azaltzen diren produktu guztiak gizakiarentzat edo ingurugirorako toxikotasun baxu edo ertainekoak dira» gehitu zuen Dioni Berrok.

Azken gunean, informazio gehiago lortzeko bidea eskaintzen da. Izan ere gune horrek arazo horri buruz dauden beste web orri batzuetarako bide ematen du.

Astigarragako Gartziategi sagardotegia saritu zuten

G.M.

DONOSTIA

Atzo, web orria aurkezteko prentsaurrekoa hasi baino lehen, ekainaren 14an Donostiako Elkarte Gastronomikoan egin zen II. Sagardo Lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkieten. Hain zuzen ere, Astigarragako bi sagardotegi eta Tolosako bat izan ziren saritu horiek.

Astigarragako Gartziategi sagardotegiaren izenean Bittor Lizeagak jaso zuen Sagardo Lehiaketako lehen saria. Bigarren saria, berriz, Tolosako Isastegi sagardotegiak bereganatu zuen, eta haren izenean Miguel Maria Lasak jaso zuen. Azkenik, hirugarren saria Astigarragako Oiarbide sagardotegiak erdietsi zuen, eta sagardotegi horren izenean Sebastian Zabalegik jaso zuen.

Sariak banatzeko unean Nuria Lopez de Gereñu diputatuak hartu zuen hitza, hiru sarituak zoriontzeko asmoz. «Zorionak, eta jarrai ezazue kalitate oneko sagardoa egiten, botilatzen eta merkaturatzen», hitz horiek erabili zituen hiru sagardogile horiek egiten duten lana goraiatzeko aldera.